



DEIALDIA

Conxemar 2017

Vigo (Espainia)

Egunak: 2017ko urriaren 3tik 5era.

Lekua: IFEVI Azoka Barrutia, Vigo.

Maiztasuna: Urterokoa.

Nori zuzendua: Banaketa-kanal profesionali (inportatzaileak/ esportatzaileak, banaketa, prozesadoreak, goi-mailako banaketa eta HO.RE.CA. kanaleko espezialistak)

Izena emateko epea:

osteguna, 2017ko apirilak 20

Web orria: www.conxemar.com

Informazio gehiago: Tel.: 94 470 65 00
Lucia de Artaza: lucia.artaza@camarabilbao.com

DEIALDI HONETAN:

Azokaren izaera

Parte hartzeko baldintzak

Parte-hartze eredia eta kostua

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

Eskainitako zerbitzuak

Izen-emate formularioa



Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituren Sailak, Euskadiko Elikagaien Industria atzerrian sustatzearen aldeko jarduketan barruan, enpresen taldeko parte-hartzea antolatuko du CONXEMAR 2017

azokan, aurtengoa hemeretzigarren edizioa izanik.

CONXEMAR azoka **Vigon** izango da, 2017ko **urriaren 3tik 5era**.

Conxemar 2017 azokaren izaera

Erakusketa eremua: 32.000 m²

2016ko erakusketariak: 700 erakusketari, 40 herrialdetakoak

2016ko bisitariak: 30.000

Azokaren web orrialdea: www.conxemar.com

- Arraina eta izoztutako produktu-mota guztiak merkaturatzen dituzten sektoreei zuzenduta dago, Estatu mailan izozkien azokarik garrantzitsuena eta mundu-mailan bigarrena izanda.
- Publiko profesionalari baino ez dago zuzenduta eta banaketa-kanal ezberdinetan aitzindari diren erosle ugari erakartzen ditu.
- 2016an 40 herrialdetako 700erakusle izan ziren 32.000 metro karratuko erakusketa eremua eta 106 herrialdetako 30.000 bisitari bertaratu ziren (2015an %11 baino gehiago).



Azokaren ordutegia: Asteartea eta asteazkenea, urriaren 3an eta 4an, 10:00etatik 18:00etara.

Osteguna, urriak 7, 10:00etatik 16:00etara.

Lekua: IFEVI Azoka Barrutia, Vigo.

Maiztasuna: Urterokoa.

Nori zuzendua: Banaketa-kanal ezberdinetako profesionalari (inportatzaileak/esportatzaileak, banaketa, prozesadoreak, goi-mailako banaketa eta HO.RE.CA. kanaleko espezialistak).

Sektoreak: Handizkariak, inportatzaileak, esportatzaileak, eraldatzaileak, fabrikatzaileak, banatzaileak, izozkailuak, makinak, industria osagarria (hotza, bilgarriak, plastikoak, etab.), akuikultura.

Erakusketa eremua: 32.000 m².

Parte-hartzea 2014an: 30.000 bisitariak eta 40 herrialdetako 700erakusketari.

Azokaren web orrialdea: www.conxemar.com

Parte-hartze baldintzak

Joateko konpromisoa
Euskal Herrian egindako produktuak
Ebaluazio-inkesta

Egoitza soziala Euskal Herrian duten eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituren Sailaren Elikadura Industrien Erregistroan inskribatuta dauden **ekoizpen-enpresek** bakarrik parte har dezakete azoka honetan.

Azoka baino lehen:

- Enpresako ordezkari bat joateko eta kuota ordaintzeko konpromisoa; beraz, **Euskadiren pabiloian sartu izana jakinarazi eta gero ezin da ekintzan baja eman.** Ezinbesteko kasuetan soilik baloratuko ditu Eusko Jaurlaritzak enpresak emandako arrazoiak eta ordaindutakoaren zati bat itzultzea aztertu.
- Enpresek derrigor egon behar dute bertan muntaketa-egunean, adierazitako orduan produktuak jasotzeko eta erakusmahaiak azokaren inaugurazioa hasi baino dezente lehenago dekoratzeko.

Azokak iraun bitartean:

- Ikusgai jarriko diren produktuak **Euskal Herrian egindakoak** izango dira. Ezingo da, inolaz ere, beste autonomia erkidegoetako produkturik aipatu edo aurkeztu.
- Azokak iraun bitartean erakusmahai egunero eta ordutegi osoan zainduko da.
- Azoka amaitutakoan, produktu guztiak behar bezala jasoko dira eta erakusmahaiaren elementuak jasotako baldintzetan itzuliko dira.

Azokaren ondoren:

- **Ebaluazio-inkesta** bete, eskatzen denean.

Parte-hartze eredua eta prezioa

1 MOTAKO enpresen kuota = 981 € + BEZa

2 MOTAKO enpresen kuota = 1.635 € + BEZa

3 MOTAKO enpresen kuota = 2.289 € + BEZa

Parte-hartze eredua

2017ko edizioan, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko arrantza-industrian interesatutako enpresak hartuko dituen 110 m²-ko stand bat edukiko du. Organismo O izialen E hallean egongo da, zehazki.

Parte hartzeko bi modu eskaintzen dira:

- **BANAKAKO erakusmahaia.**

Parte-hartzearen prezioa

CONXEMAR 2017an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituren Saitetik Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektorearen produktua eraldatu eta merkaturatzen duten enpresen parte hartzea bultzatuko da.

Parte hartzeko kuota **bi zatitan ordainduko** da, baina faktura bakarra izango da.

- Zenbatekoaren %50 + BEZ %21 izena emateko orduan eta espazioa erreserbatzeko kontzeptuarekin.
- Gainerako zenbatekoa jardunaldia egin baino 60 egun lehenago ordaindu beharko da.

Ondoren ekintzetan parte hartzeak dakarren kostua finantzatzeko diru laguntzetarako egingo den sailkapena adierazten dugu:

• **1 motako enpresa** = Nagusiki Euskal Herriko lehengaiak hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorriaren egiaztatu beharko du.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen diru laguntza %70 izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

Banakako Erakusmahaia = 981 € + BEZa %21

• **2 motako enpresa** = Euskal Herritik kanpoko lehengaiak hornitzen diren enpresak, tokiko lehen mailako produktorik ez badago, betiere.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen diru laguntza %50 izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

Banakako Erakusmahaia = 1.635 € + BEZa %21

• **3 motako enpresa** = Nagusiki Euskal Herriko produktuez hornitzen ez diren enpresak, nahiz eta tokiko lehen mailako produkzioa egon.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen diru laguntza %30 izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

Banakako Erakusmahaia = 2.289 € + BEZa %21

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

Izen-emate formularioa beteta

Ordainketa-egiaztagiria

Izena emateko azken eguna: **2017ko apirilaren 20an**

Parte hartzeko interesa baduzu, lekua mugatua denez, izena-emate formularioa bete eta ordainagiria ahalik eta azkarren bidaltzea gomendatzen dugu, Lucía de Artazari:

lucia.artaza@camarabilbao.com

Enpresa parte-hartzaileen **hautaketa** izen-emate agirien **jasotze hurrenkeraren arabera** egingo da. Zure eskaria kontuan hartzeko, honakoa aurkeztu behar duzu:

1. Izen-emate formularioa bete

Informazio honetatik bertatik transkribatuko dira datuak azokaren katalogo ofizialerako eta sustapenerako lantzen diren gainerako elementuetarako

Izen emate formularioa



2. Izen-emate kuotaren ordainketa-egiaztagiria.

Ordainketa bankuko transferentzia bidez egingo da:

Kontzeptua: "Enpresaren izena + CONXEMAR 2017".

Kontu zenbakia: ES97 0182 1290 3600 0001 7727 (BBVA) BILBOKO MERKATARITZA GANBERAren izenean.

Izena emateko azken eguna: osteguna, 2017ko apirilaren 20an.

Dagokion zenbatekoaren **faktura parte hartzea baieztatu eta gero** bidaliko da.

Bigarren zatiaren ordainketa ekintza egin baino 60 EGUN LEHENAGO egingo da.

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

OHARRA:

Eskatutako dokumentuak bidaltzeak EZ DU ESAN NAHI enpresak Eusko Jaurlaritzaren standean parte hartuko duela, izan ere, gutxieneko enpresa kopuru bat egon behar da hori egiteko. Eusko Jaurlaritzak izena ematearen onarpena jakinaraziko du.

ENPRESAK FAKTURA JASO ETA GERO, HAU DA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PABILOIAN SARTU DELAKO JAKINARAZPENA JASO ETA GERO, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.

Izen ematea formalki egindakotzat jotzeko, ESKATUTAKO DOKUMENTU GUZTIAK bidali behar dituzue, eta izena emateko data gisa, ondorio guztietarako, izena ematearen ordainketaren data agertuko da. Halabeharrezko kasuetan baino ez, antolakuntzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat itzultzeko:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halabeharrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren % 100 jasotzeko.

Eskeinitako zerbitzuak

- 1) Eremuaren kontratazioa
- 2) Pabiloiaren dekorazioa
- 3) Pabiloiaren mantentzea

Eusko Jaurlaritzak honako zerbitzu hauek eskainiko ditu:

Eremuaren kontratazioa

Espazio promozional batekin parte hartuko da, eta hori enpresa ko-erakusle bakoitzerako pertsonalizatutako stand indibidualetan eta banatuko da.

Pabiloiaren dekorazioa

Erakusmahaiaren dekorazioa eta oinarrizko elementuak berdinak izango dira Euskal Herriko pabiloiko erakusketari guztientzat; honako hauek, alegia:

- Mahaia eta 4 aulkia
- Mostradorea
- Enpresa erakusketariaren errotulua
- Konexio elektrikoa
- Biltegia partekatua

Pabiloiaren mantentzea (garbiketa, elektrizitatea, ura, etab.)

Eusko Jaurlaritza arduratuko da garbiketaz, elektrizitateaz, uraz eta, oro har, pabiloia behar bezala zaintzeaz.

Stand bakoitzean gehieneko potentzia elektrikoa eta kontsumoak egongo dira. Parte hartzeko izapideak hasitakoan emango zaie erakusketariei informazio honen berri.

Oharra: Eskainitako oinarrizko altzarien, elementu elektrikoen edo standen behar elektrikoen inguruko edozein aldaketak kostua areagotzea edo aldatzea badakar, erakusketariak ordainduko du kostu erantsi hori, eta zuzkitzaileak zuzenean fakturatuko dio zerbitzu hori.

Eskeinitako zerbitzuak

- 4) Salgaien garraioa
- 5) Hotz-kamerak eta gainerako etxetresna elektrikoak
- 6) Katalogo ofizialean sartzea
- 7) Komunikazio eta zabaltze kanpaina

Salgaien garraioa

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren bidalketa bateratu bat antolatuko du esleitutako garraiolari ofizialak adierazten duen lekutik merkantzia standean bertan entregatu arte. Bere garaian, esleipena duen enpresa garraiolariaren datuak emango dira.

Garraioaren kontratazioa indibiduala izango da; ondorioz, garraiolariak zuzenean bidaliko dio enpresa erakusleari merkantzia bidaltzearen kostua, eta zerbitzua enpresaren kontu joango da.

Hotz-kamerak eta gainerako etxetresna elektrikoak

Hotz kameren eta beste etxetresna elektrikoen alokairua erakuslearen kontu izango da. Halere, Saila enpresen esanetara jartzen da zerbitzu hori kontratatzea koordinatzeko, eta hornitzaileak zerbitzuak zuzenean erakusleari fakturatuko dizkio.

Izen-emate ofiziala azokan

Eusko Jaurlaritzak beharrezko izapideak egingo ditu azokan izango diren enpresa erakusketari guztiak azokaren web ofiziala zein katalogo ofiziala ager daitezen (IZEN-EMATE FITXAtik jasotako datuak agertuko dira).

Komunikazio eta zabaltze kanpaina

Eusko Jaurlaritzak azokan izango dugun presentziari buruzko komunikazio masiboko kanpaina bat egingo du prentsa espezializatuan eta erosle potentzialen artean, eta gure enpresak bisitatzeraz eta gure produktuak dastatzera gonbidatuko ditu